

Materialen Ikerketarako Europako Elkarateak Maurizio Prato Ikerbasque irakaslearen lana saritu du

Pratori emandako 'E-MRS 5-Year Materials Impact Prize' sariak materialen zientziaren arloan egindako ekarpenak aitortzen ditu

E-MRSk materialen ikerketaren arloan aurrerapen nabarmenak egin dituzten zientzialariei ematen dien sari nagusia da, eta bost urtean behin ematen du

Donostia, 2023ko uztailaren 10a. [Maurizio Prato](#) CIC biomaGUNEko Ikerbasque ikerketa-irakasle eta AXA katedradunak "E-MRS 5-Year Materials Impact Prize" sari ospetsua jaso du, materialen zientziaren arloan egindako ekarpenengatik. Materialen Ikerketarako Europako Elkarateak ([E-MRS](#)) ematen duen sari nagusia da hori, eta bost urtean behin ematen zaie arlo horretan aurrerapen nabarmenak egin dituzten zientzialariei. Hala, materialen zientziaren garapenean nabarmen lagundu duen talde eskusibo bateko kide da orain Maurizio Prato.

Saria emateko ekitaldia Estrasburgon (Frantzia) egin zen, 2023ko Udaberriko Konferentzian —E-MRS sozietateak urtero antolatzen duen konferentzia nagusia—, eta Pratoren lana aintzatetsi zuten han, egindako ikerketengatik eta materialen zientzian izan duten eraginagatik. Ikerketa-irakasleak biziki eskertu du saria: "Nire ustez, sari garrantzitsuak jasotzea da gure ikerketan ahalegin are handiagoa egitera bultzatzen gaituen bitartekoa. Gure lana oso garrantzitsua da guretzat, eta gure bizitza pertsonalaren kaltetan egiten dugu lan maiz; baina hau bezalako sari garrantzitsu bat jasotzen dugunean, ontzat jotzen dugu egindako ahalegin guztia. Benetan merezi izan duela esan nahi du".

Bere ibilbidean zehar, Pratok etengabe zabaldu ditu ikerketa zientifikoaren mugak, eta aurrera bultzatu du bere ideia berritzaileekin eta dedikazioarekin. Pratoren lanak materialen zientziaren hainbat alderdi irauli ditu, nanoteknologiaren eta karbonoan oinarritutako materialen esparruan batez ere. Bere ekarpenen artean, nabarmentzekoa da karbonozko nanohodi berrien eta haien aplikazioen garapena: "Gure ikerketa-taldeak urte asko daramatza lanean karbonozko nanoformen funtzionalizazioan, aplikazio praktikoetan erabili ahal izateko. Azkenaldian, gure ikerketak zabaldu ditugu, eta beste material-mota batzuekin ere ari gara lanean; esate baterako, perilen bisimidekin (pigmentu organiko batzuk dira). Gure ekarpenen artean, nabarmentzekoa da, zalantzarik gabe, bizkarrezur-muinaren lesioetako konexio hautsia birkonektatzeko saioa edo fotosintesi artifizialaren azterketa, zeinaren emaitza lagungarri izan bailiteke egungo energia-krisiari erantzuteko".

Ekitaldian, energia- eta medikuntza-aplikazioetarako interfaze hibrido multifuntzionalei buruzko [hitzaldi](#) bat eman zuen Pratok, eta bi eremu erabakigarri horietan emandako aurrerapausoak deskribatu zituen. "Batetik, bizkarrezur-muineko lesioetan nerbioak birkonektatzeko saioa, non karbonozko nanohodiek nerbioei hazten laguntzeko substratu aktibo gisa jardun baitezakete, eta, bestetik, uraren zatiketa fotoelektrokatalitikoak hidrogeno berde deritzona produzitzeko".

Ekitaldiaren antolatzaileek Pratoren lidergoa nabarmendu dute, eta “hizlari trebe gailen” gisa definitu. Halaber, adierazi dutenez, “hizlarien jakintza, perspektiba eta lidergoa” izan da “hitzaldiz beteriko astearen une gorenetakoa bat”.

E-MRSri buruz

Materialen Ikerketarako Europako Elkarte (E-MRS) 1983an sortu zen, eta, gaur egun, 4.000 kide baino gehiago ditu, industriaren, administrazioaren, mundu akademikoaren eta ikerketa-laborategien arlokoak. Aldizka biltzen dira, material funtzionalen azken aurrerapen teknologikoak eztabaidatzeko. E-MRSk komunitate zientifikoaren, ingeniarien eta ikerketa-zuzendarien arteko informazio-trukea sustatzen du diziplinarteko plataforma batean; bikaintasun profesionala eta teknikoa aitortzen ditu, eta ikasle-mailatik hasi eta zientzialari seniorrerainoko mailan lortutako aurrerapausoak saritzen. Materialen Ikerketarako Elkarte Nazioarteko Batasunari (IUMRS) atxikitako erakunde gisa, E-MRSk harreman estua du Europako eta mundu osoko materialen ikerketako beste erakunde batzuekin.

Maurizio Pratori buruz

[Maurizio Prato](#) Paduako Unibertsitateko Kimika Organikoko Sailean hasi zen ikertzaile gisa 1983an; 1992an, Triesteko Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Kimika Organikoko irakasle elkartu izendatu zuten, eta irakasle titular izatera iritsi zen 2000n. 2015etik, CIC biomaGUNE ikerketa kooperatiboko zentroko Ikerbasque ikerketa-irakaslea eta AXA katedraduna da. ERCren bi laguntza garrantzitsu jaso ditu, 2008an eta 2020an.

Horrez gainera, Accademia Nazionale dei Linceiko kide izendatu zuten 2010ean; Europako Zientzia Akademiako kide 2013an; Europako Akademiako kide 2015ean, eta Istituto Veneto di Scienze, Lettere ed Artiko kide 2018an. 2013an, bestalde, Xi'an-go Jiao Tong Unibertsitateko ohorezko irakasle izendatu zuten (Txina). Texasako Unibertsitate Teknologikoan aritu da ikertzen, Lubbocken (1980); Dublingo University Collegen (1983); Yaleko Unibertsitatean (1986-87), eta Kaliforniako Unibertsitatean, Santa Barbaran (1991-92). Irakasle gonbidatua izan da zenbait unibertsitatetako kimika-sailetan: Pariseko École Normale Supérieuren (2001), Namurreko Unibertsitatean (Belgikan, 2010ean), Estrasburgoko Unibertsitatean (2014), eta Monseko Unibertsitatean (Belgikan, 2018an), *Françqui katedraren* titular gisa. Salentoko Unibertsitateak "Bioteknologia Medikoa eta Nanobioteknologia" alorreko ohorezko titulua eman dio berriki. Gainera, 2021ean, National Academy of Inventors-ek (NAI) NAI Fellow izendatu zuen zientziaren hainbat alorretan egindako ekarpenengatik, eta 2022an Espainiako Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiak (RAC) atzerriko akademiko izendatu zuen.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE Biomaterialen Ikerketa Kooperatiboko Zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere. 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.

Argazki-oinak

Hitzaldia: Maurizio Prato CIC biomaGUNEko Ikerbasque irakasle eta AXA katedraduna E-MRS elkartearen 2023ko Udaberriko Konferentzian emandako hitzaldian (iturria: E-MRS).

Sari-banaketa: Joan Ramón Morante E-MRSko lehendakariak Maurizio Prato irakasleari saria eman zion uneko irudia (iturria: E-MRS).